



PARTE-HARTZAILEAREN FITXARI ETA MEREZIMENDUEN BAREMAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA ARGIBIDEAK

A).PARTE-HARTZAILEAREN FITXA

Fitxa ikusi ahal izango da onartutako en eta merezimenduen behin-behineko zerrenda argitaratu ematen den datatik eta zerrenda horren kontra erreklamazioak aurkezteko epea bukatu arte, ez gehiago (hau da, **2025eko otsailaren 6ra arte**).

Parte-hartzaileek <https://hezigunea.euskadi.eus> Interneteko helbidean izango dute erreklamazioa egiteko aukera. (Horretarako, kontsultatu erreklamazioen atala)

Fitxa honek bost multzo ditu.

A.1.- Identifikazio-datuak.

Parte-hartzaileak eskaeran betetakoarekin bat etorri behar dute datuek, oposizioa gainditu zuen urtea eta kalifikazioa izan ezik, Administrazioak ofizios sartzen dituenak.

A.2.- Puntuazioaren aukeraren datuak.

Parte-hartzaileak eskaeran adierazitako baremoaren aukera agertzen da. Ondorengo puntuak hartu behar ditu kontuan:

A) Parte hartu zen azken lehiaketako (2010/2011koa edo geroagokoak) "puntuazioari eustea" aukera hautatu bada, parte hartu zuen azken lehiaketan izan zituen puntuazioekin jarraitzen du; eta Administrazioak ofizios gaurkotu ditu I. eranskinen 2, 3, 4, 5 eta 6. ataleen barruan ofizios dauden merezimenduak, parte hartu zuen azken lehiaketan eskaerak aurkezteko epeak bukatu ondoren hobetutako merezimenduak badira; ofizios ez doazen I. eranskinen merezimenduen baremazioari dagokienez, kasu bakoitzean eranskin horretan adierazitakoaren arabera egin da (behar diren egiaztapenak aurkeztu behar izan dira).

B) Parte hartu zen azken lehiaketaren ondorengo "merezimendu berriak gehitzea" aukerak, parte hartu zen azken lehiaketan (2010/2011koa edo geroagoak) lortutako puntuazioarekin ados zaudela esan nahi du baina parte hartu zen azken lehiaketan barematutako en ondorengoko merezimendu batzuk gehitu nahi dela esan nahi du; horregatik, parte hartu zuen azken lekualdatze-lehiaketako eskabideak aurkezteko epea (2010eko abenduaren 15a, 2012ko urtarrilaren 28a, 2012ko azaroaren 23a, 2013ko abenduaren 21a, 2014ko azaroaren 25a, 2015eko abenduaren 21a, 2016ko azaroaren 28a, 2017ko abenduaren 13a, 2018ko azaroaren 27a, 2019ko abenduaren 19a, 2020ko azaroaren 26a, 2021eko abenduaren 1era, 2022ko azaroaren 7a edo 2023ko abenduaren 21a) bukatu ondoren amaitutako eta lortutako merezimenduak aurkeztu behar izan ditu.



** Atal horietan adierazitako datak baino lehenagoko beste merezimendu batzuk gehitu badira, ez dira barematu.

C).- “Barematze berria “ aukera: Aukera hau ofizioz barematzen ez diren I. eranskinetako merezimenduak barematzea nahi dutenentzat da (parte hartu zuten azken lehiaketaren deialdia baino lehenagokoak badira merezimendu horiek), edo parte hartu zuten azken lehiaketan emandako baremazioarekin ados ez daudenentzat, ere bai. Justifikazio-agiri guztiak aurkeztu behar izan dituzte, deialdian aurreikusitakoaren arabera, dagokion atalerako, balorazioa egiteko.

A.3.- Parte hartzeko datuak

KODEA	PARTE HARTZEKO MODALITATEEN AZALPENA
A	Behin betiko destinoa
B	Borondatezko eszedentea
C	Diziplina-espedientearen ebazpen irmoa
D	Sententzia edo errekurso-ebazpena betetzeagatik
E	Betetzen zuten behin betiko lanpostua kendu edo aldatzea
F	Behin-behineko destinoarekin itzultzeagatik
G	Nahitaezko eszedentziagatik
H	Zigorra bete ondorengo funtzio gabetzeagatik
I	Behin betiko izaeraz betetzen zenuen lanpostua galtzea ekarri duten antzerako arrazoiengatik
J	Inoiz behin betiko destinoa lortu ez duen behin-behineko izateagatik
K	Praktiketako funtzionarioak .

Lehenik eta behin, parte hartzen den modalitatearen kodea agertu behar du (koadroan ezarritakoan arabera). Modalitate horren arabera, haien datuak beteta agertu behar dira.

Ikastetxea, herria edota barrutia aukeratzeko lehentasunezko eskubideaz baliatuz gero, egiaztatu behar da ikastetxearen, herriaren eta barrutiaren datuak zuzenak diren. Espezialitateak eskatzeko idazkietan, agertu beharko dute espezialitatearen kodeak, IBILTARITZA adieraztea eta A, C edo D letrak, bernakuloari (hizkuntza eskakizunari) dagozkionak, adibidez:

Esp.	Hizkuntza	Ibiltaritza	Adierazten da	Oharra
38	D	1		Zuzena
38			Error	Ez da zuzena



A.4.- Funtzionarioaren datuak eta merezimenduak

Maisu-maistren kidegoko funtzionarioen kasuan, lehiatzaileak aitortuta dituen espezialitate guztiak agertu behar dira, baita egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna ere; behin-behinekoa bada, gaur egun zerbitzuak ematen dituen lurralde historikoa ere bai. Praktiketako funtzionarioen kasuan, oposizioko espezialitatea besterik ez da agertuko.

Kidego guztien parte-hartzaileek (praktiketako funtzionarioek izan ezik, merezimenduen baremazioaren arabera ordenatzen ez direlako) egiaztatu beharko dute atal bakoitzerako emandako puntuazioak bat datozen zerbitzu-denborekin eta argudiatutako eta/edo aurkeztutako merezimenduekin. Praktiketako funtzionarioen kasuan, oposizioko espezialitatea besterik ez da agertuko.

A.5.- Lanpostuen eskaerak.

Fitxan aplikazio informatikoan altan eman zituen eskaera guztiak daudela eta benetan eskatutakoak direla egiaztatu beharko du parte-hartzaileak. Horretarako, kodeak banan-banan konprobatu beharko ditu.

Zuzenak ez diren eskaerak “Errorea” espresioarekin agertzen dira eskaera-lerro bakoitzaren eskuinaldean, eta **B** letrarekin bajaran emandako eskaerak.

A.5.1- Zuzenak ez diren eskaerak:

- Espezialitatea gaizki aukeratzeagatik :

Ez duten espezialitate bati dagokion kode oker bat sartu duten parte-hartzaileek.

Lehen behin betiko destinoa lortu ez duten eta 2007. urtetik aurrera sartzeko aukeratze-prozedurak gainditu dituzten parte-hartzaileek oposizioko espezialitatean parte hartu beharko dute derrigorrean; bestela, eskaera ez da zuzena.

-Hizkuntza gaizki aukeratzeagatik:

Hizkuntza-kode okerra (hizkuntza-eskakizuna) edo egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna baino goragoko hizkuntza-kode bat eskatzea. Parte-hartzaile bakoitzak kontuan hartu behar du egiaztatutako hizkuntza-eskakizunaren arabera eska ditzakeen hizkuntza-kodeak (ikus taula).

Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna	Eska dezaken hizkuntza-kodeak
2	A, C, D
1	A, C
0	C

- A Kodea: 1. HE derrigortasun-data Amaitua
- C Kodea: 1. HE derrigortasun Datarik gabe
- D Kodea: 2. HE derrigortasun-data Amaitua

-Zentro gaizki aukeratzeagatik:

HHEko ikastetxe-eskaera bat sartu duten parte-hartzaileak, baina Lehen Hezkuntza espezialitateari dagokion espezialitate-kodea adierazita, edo, alderantziz, lehen hezkuntzako ikastetxea (HLHI), baina HHEko kodea adierazita.

Eskaerak fitxan agertzeak **EZ** du adierazten baliagarri direnik, baizik eta eskaeran adierazitakoekin bat datozela. Zuzenak ez diren eskaerak "Errorea" espresioarekin agertzen dira eskaera-lerro bakoitzaren amaieran

A.5.2. Bajan eman diren eskaerak:

Deialdiaren seigarren oinarriko 6. atalean ezarritako baldintza bete gabe Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen bi kursoak eskatzen dituzten parte-hartzaileak.

Plaza bat eskatu duten parte-hartzaileak, deialdian adierazitakoaren arabera baldintzak egiaztatu ez dituztenak.

A.5.3.- Herria edo barrutia aukeratzeko lehentasunezko eskubidearen modalitateari dagozkion eskaeretan, "DPL" siglak idatzi behar izan dira "lanpostu mota" atalean. Horrela egin ezean, parte-hartzaile horiei E modalitateetik (lehentasunezko eskubidearekin parte hartzea) kenduko zaizkie, S arrazoiarengatik (ez ditu DPL siglak idatzi lehentasunezko eskubidea duten lanpostuak identifikatzeko),.

Ez dute agertu behar espezialitatearen eta hizkuntzaren kodeek; **DPL** letrek besterik ez dute agertu behar.

B) ERREKLAMAZIOAK

Merezimenduen baremazioaren, eskaera okerrak zuzentzearen, zuzendu daitezkeen akatsak zuzentzearen eta abarren aurkako **erreklamazioak 2025eko urtarrilaren 24tik otsailaren 6ra**, biak barne, egin beharko dira Interneteko helbide honetan: <https://hezigunea.euskadi.eus>.

NANarekin eta pasahitzarekin identifikatu ondoren, Eremu pertsonala / Izapideak langileen sailarekin / Lekualdatze Lehiaketa / (Erreklamatu nahi dituzun atalei dagokien esteka aukeratu beharko duzu)

C) MEREZIMENDUEN BAREMOA (onartuen eta baremazioaren behi-behineko zerrendaren kontra erreklamazioa egin aurretik, kontuan izan beharreko informazioa)

C.1.- Bitarte funtzionario gisa eta praktiketako funtzionario gisa emandako zerbitzuen balorazioa

Duela bi urteko deialdiaren berritasun garrantzitsu gisa, **bitarteko funtzionario gisa eta praktiketako funtzionario gisa** emandako zerbitzuen balorazioa sartu ziren hurrengo ataletan:

- 1.2. atala Antzintasuna kidegoan.
- 4.1, 4.2 eta 4.3 atala Zuzendaritza-karguak eta beste funtzio batzuk bete izana
- 6.4 atala Hezkuntza administrazioko lanpostuetan aritu izana
- 6.6 atala Master eta graduako praktiken tutoretza

Noski, balorazio hori mantendu egingo da lehiaketa honetan.

Zerbitzu horiek guztiak eskabideak amaitzeko epea amaitu arte zenbatzen dira (2024ko azaroaren 26ra arte).

Hilabete oso batera iristen ez diren egunen zenbaketa baztertu egiten da.

Karrerako funtzionario, bitarteko edo praktiketako funtzionario gisa emandako zerbitzuak bakarrik zenbatuko dira. Gainerako enplegu-harremanak ez dira zenbatzen.

C.2.- Emandako zerbitzuen balorazioa

Lanbide Heziketako irakaskuntzei buruzko araudiaren aldaketaren arabera, desagertu beharreko Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko espezialitate batzuk Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegokoak izatera pasatu dira, eta beste batzuk Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidego berrikoak izatera pasatu dira. Hala ere, kidegoko antzintasuna (1.2) berdin baloratuko da, aldaketa horrek eragindako espezialitateetan zerbitzuak zein kidegotan eman diren kontuan hartu gabe.

Era berean, desagertu beharreko Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko karrerako funtzionarioak Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartu dira. Hala ere, ikastetxeko antzintasunaren zenbaketan (1.1.1) ez da bereizketarik egingo integrazio hori gertatu delako.

C.3.- Merezimendu akademikoak

3.1.2. Masterra baloratuko da, baldin eta irakaskuntzako funtziora sartzeko eskatutakoa ez den eta 60 kreditu, gutxienez, ematen dituen kasuetan. Atal honen

bidez, irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko eskatu ez den irakasle-kidegoetan (Maisu-maistrak, Musika eta Arte Eszenikoak eta Arte Plastikoak eta Diseinua) soilik baloratzen da Irakasleen prestakuntza pedagogiko eta didaktikoko master ofiziala. Era berean, ez dira kontuan hartzen doktoretzarako garai bateko ikastaro monografikoak, unibertsitate-titulu ofizial bat lortzeko xedea dutenak.

3.2.2. eta 3.2.3.- Lehen eta bigarren zikloko titulazioak

Bigarren lizentziatura, arkitektura edo ingeniarietza baten bigarren zikloko ikasketak baloratzeko, lortutako titulu guztiak aurkeztu beharko dira, Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Musika eta Arte Eszenikoetako Kidegoetara sartzeko baldintza izan zen lizentziatura barne, langileen Erregistroan jasota agertzen direnak salbu.

Bigarren lizentziatura titulua aurkeztuta, 3.2.3. atalean besterik ez da bigarren zikloko titulazio gisa zenbatuko.

Bigarren lizentziatura horren lehen zikloa 3.2.2. atalean zenbatzeko, ondorengoa egiaztatuta beharko da:

- Lizentziatura horren lehen zikloko hiru kursoak egin diren.
- Lehen zikloak ez duen funtzio publikora sartzeko baldintza izan zen lehen lizentziatura lortzeko balio.

Egiaztapen hori egiteko, titulu guztien ziurtagiri akademikoak aurkeztu beharko dira; ziurtagiri akademiko horiek lizentziatura bakoitza osatzen duten kurso guztietako irakasgai guztiak gainditu izana agertu beharko dute.

3.3. Araubide Bereziko Irakaskuntzen eta Lanbide Heziketaren titulazioak:

Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako ziurtagiriak barematuko dira bakarrik atal honetan, ez baliokideak. Atal hau ofizioz zenbatzen da, Saileko tituluen erregistroan jasota eta gaurkotuta dagoen informazioaren arabera (hizkuntza bererako bi ziurtagiri aurkeztuz gero, parte-hartzaileak aurkezten duen maila goreneko titulazioa besterik ez da kontuan hartuko).

C.4.- Zuzendaritza-karguak

Bitarteko eta praktiketako gisa emandako zerbitzuak zenbatzean izandako berritasuna kontuan hartuta, aldi horietan egiaztatutako zuzendaritza-karguak eta/edo funtzioak ere kontuan hartuko dira.

Tutoretza-funtzioa 2006ko maiatzaren 24tik aurrera hartzen da kontuan, data horretan sartu baitzen LOE indarrean.

C.5.- Beste merezimendu batzuk

Ikasturte honetan berrikuntza gisa sartu da irakaskuntzako gaitasun digitalaren egiaztapenaren zenbaketa **5.4 atalean**. Ofizioz zenbatuko da Eusko Jaurlaritzako



Hezkuntza Sailak emandako gaitasun digitalaren egiaztapena. Parte-hartzaileak aurkeztutako goi-mailako egiaztapena baino ez da kontuan hartzen.

5.5. atala: ACLESek (Goi-mailako Hezkuntzako Hizkuntza Zentroen Elkarte) onartutako atzerriko hizkuntza-ziurtagiriak. Ofizioz zenbatu dira Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota dauden atzerriko hizkuntzaren ziurtagiriak/tituluak.

Bestalde, eta merezimendu berbera, hizkuntza bereko ezagutza maila egiaztatzea behin baino gehiago baloratzerik ez dagoenez, ondoren esaten den eran egin da atzerriko hizkuntza bat menperatzeari buruzko 3.3. eta 5.5. atalen merezimenduen zenbaketa:

- Egiaztatzen bada hizkuntza baten ezagutza-maila berbera bi titulu edo ziurtagiri- edo gehiagoren bitartez, erakunde desberdinek emandakoak, 3.3 eta 5.5 azpiataletan bereizi gabe aurreikusten direnen artean, behin bakarrik puntuatuko da hizkuntza horren ezagutza, 3.3 azpiatalean.
- Egiaztatzen bada hizkuntza baten ezagutza-maila desberdina bi titulu -edo ziurtagiri- edo gehiagoren bitartez, erakunde desberdinek emandakoak, 3.3 eta 5.5 azpiataletan bereizi gabe aurreikusten direnen artean, puntuak jasoko ditu bakar-bakarrik egiaztatutako maila gorenari dagokion azpiatalean.

6.6.1 atala. Praktiken tutoretzak berariaz aipatzen ditu "Gradua eta Masterra" titulazio berriak. Ondorioz, atal honetan ez dira barematu behar adierazi ez diren titulazio akademikoak lortzeko ikasketei dagozkien praktiketako beste tutoretza batzuk.

6.6.2 atala: ikasturte honetako berrikuntza da praktiketako funtzionarioen tutoretza barematzea, praktika-fasea 2023-2024 ikasturtetik aurrera egin bada. Ofizioz egingo da, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ikastetxeetan praktikak egiteko tutoretzaren kasuan. Baldintza hori betetzen duten 6 pertsona baino ez dira egon 2023-2024an. 2024-2025 ikasturteko praktiken tutoretza ez da konputagarria, tutoretza-lan hori ez baita amaitu lekualdatze-lehiaketa honetako eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen (2024ko azaroaren 26a).

C.6.- Eskaeren eremuei buruzko argibideak

Jarraian azaltzen den eskaera honako eremu hauek osatzen dute:

ZENTROAREN KOD.	ESPEZIALITATE KOD.	HIZKUNTZA EDO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA	IBILTARITZA	AKATS ADIERAZLEA
01002259C	075	D	0	ERROR

- 1. Eskaeraren ordena-zenbakia adierazten du.
- IBILTARITZA 0 eremuak adierazten du eskatutako lanpostuak ez duela izaera ibiltaririk. 1 izango balitz, lanpostua ibiltaria izango litzateke.

- AKATS ADIERAZLEA eremuak adierazten du eskaera zehatz horrek errore bat duela.

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARITZA

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 23a